

Bigarren eta unibertsitateko hezkuntzako ikasleen genero-estereotipoak: eskolari eta bestelako sozializazio guneei begirada

Ane Larrinaga Renteria
ane.larrinaga@ehu.es

Elisa Usategui Basozabal
elisa.usategui@ehu.es

Mila Amurrio Velez
mila.amurrio@ehu.es

Ana Irene del Valle Loroño
anairene.delvalle@ehu.es

Soziologia Saila
Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea
Euskal Herriko Unibertsitatea

GAKO-HITZAK: Genero-estereotipoak. Gazteak. Bigarren hezkuntza. Unibertsitate hezkuntza. Sozializazio agentziak.

1. SARRERA

1.1. Genero-estereotipoak

Sexuaren arabera pertsonen esleitutako ezaugarrien eta nolakotasunen bilduma ditugu genero-estereotipoak. Gizon eta emakumeei sozialki egoztitako identitateen arabera esleitzen zaizkio sexu bakoitzari ezaugarri horiek. Ildo horretatik, Bonderren ustez, genero-estereotipoak gizarte jakin batek eraikitako ideiak dira, pertsonen euren sexuaren arabera izan beharreko jokamolde eta sentimenduei buruzkoak, eta belaualdiz belaualdi transmititzen direnak (1993). Hala, estereotipoak iraunkorrak izan ohi dira. Denboraren poderioz, ahaztu egiten da estereotipoak eraikuntza sozialak

direla, eta emakumezkoen eta gizonezkoen nolakotasunari buruzko denboraz kanpoko egia absolutu bilakatzen dira. Prozesu horrek estereotipoen oinarrian dauden rolen edukia deseraikitzea eta, azken batean, estereotipoak zalantzan jartzea eragozten du. Ondorioz, genero-estereotipoen bitartez naturalizatu egiten ditugu feminitatea eta maskulinitatea, eta emakumezkoen nahiz gizonezkoen sozialki esleituriko rolak eta identitateak biologizatzen ditugu.

Estereotipoak guztiz erroturik daude gizartean: emakumeengandik eta gizonengandik espero diren jokamoldeak kontrolatzen dituzte, feminitatearen eta maskulinitatearen ereduak definitzen, eta onetsita dauden genero-moldeetatik at kokaturiko jokabideak zigortzen. Hitz batean, aipatu arketipoak generoen arteko harremanen oinarrian daude. Harreman horiek, batetik, baztertzailak dira. Izan ere, emakumezkoentzat eta gizonezkoentzat kontrajarritako gune, funtzio eta erantzukizun partikularrak ezartzen dituzte. Baina, bestetik, diskriminatzaileak ere badira, maskulinoa feminoaren gaineratik jartzen dutelako. Horrela, estereotipoek errealtatea itxuraldatzen dute eta gizarte orotan emakumeek bizi dituzten desberdintasun- eta dependentzia-egoerak legitimatzeko erabiltzen dira.

Osagai arrazionalak garrantzi txikia daukate estereotipoen osaketan. Izan ere, estereotipoak ez dira nagusiki arazoiazen bidez eskuratzen (Huici eta Moya, 1997; Amorós, 1995). Aitzitik, modu inkontzientean barneratzen dira sozializazio prozesuan zehar. Inkontziente izate ezaugarri horrek estereotipoen naturalizazioa ahalbidetzen du, hau da, eraikuntza sozial gisa duten nolakotasuna ezkututzen du. Ondorioz, estereotipoek gizakien jokabide sozialetan daukaten eragina oso nabarmena izan ohi da. Gainera, besteenganako jokabidea alde aurretik ezartzean, «beste» horiengan igurikitutako erantzuna eragiten dute. Horrela, estereotipoa indartu egiten da behin eta berriro. Estereotipoen osagai inkontziente indartsu horrek eta estereotipoek sortutako jokabideen normalizazio funtzioak argitu egiten digute zergatik diren hain gaitzak aldatzeko, euren sorreraren jatorrian dauden gizarte baldintzak aldatuta ere.

1.2. Genero-estereotipoak gazteen eta nerabeen artean

Historian zehar era guztietako gizarteetan ageri izan dira sexuen araberako estereotipoak. Gaur egun ere, emakumeek egindako aurrerapenak bizitza sozialaren esparru guztietan atzematen ditugun arren, gure gizartean maskulinitatearen eta feminitatearen ohiko ereduak indarrean daudela erakusten digu estereotipoen azterketak. Are gehiago, aipatu ereduak emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunezko harremanak legitimatzen dituzte eta, noizean behin, gehiegikeria eta biolentziazko jokamoldeei ere bidea ematen diete. Horrela, hainbat ikerketetan egiaztatu denez, emakume asko oraintsu arte eragotzita zeuzkaten esparruetara iristen ari diren arren,

eta gune publikoan gero eta espazio handiagoak irabazten ari diren arren, ez da ikusi aldi bereko aldaketarik gizonen artean, bereziki, etxeko eta esparru pribatuko erantzukizunak partekatuzera bideraturiko aldaketei dagokienez (Aguinaga Roustan, 1999; Larrañaga, Arregui eta Arpal, 2004; Comité Económico y Social Europeo (CESE), 2004; Artazcoz, Escribà-Argüir eta Cortès, 2004). Era berean, zenbait lanek agerian utzi dute «benetako gizona» eta «emakume zintzoa» definitzen dituzten estereotipoak gazteen eta nerabeen afektibitate harremanetan gertatzen diren gehiegikeria- eta biolentzia-esperientzien oinarrian daudela (Gerber, 1991, 1995; Martín Serrano eta Martín Serrano, 1999; Toldos Romero, 2004).

Baina, horrez gain, nerabeei buruzko ikerketek ez digute erakusten gazteak bereizketaren arketipotik guztiz aldendu direnik (Meras Lliebre, 2003; Villaseñor Farias eta Castañeda Torres, 2003; Tomé, 2001). Artikulu honen oinarrian Bilboko Bigarren Hezkuntzako hainbat ikastetxetan eta EHUko Bilboko fakultateetan egindako ikerketa bat dago: «Violencia de Género en las relaciones de pareja de adolescentes y jóvenes de Bilbao» izenburuko lana, hain zuzen ere (Amurrio, Larrinaga, Usategui eta del Valle, 2008a; 2008b). Ikerketa horretan egiaztatzen denez, gazteek eta nerabeek euren afektibitate bizipenak eta bizipen sexualak egokitze erabilgarriko estereotipoak genero-markaz kutsaturik daude. Bestela adierazita, maskulinitate eta feminitate patroiei loturik daude, eta horiek gizonetzko leku hegemonikoa ematen dieten harremanak hartzen dituzte baitan, hots, desberdintasun sozialean eta sexualean oinarrituriko harremanak.

Aipatu ikerketan parte hartu duten ikasle gazteen eta nerabeen diskurtsoan, alde batetik, gizon arketipoa duen gizonetzko eredu sumatzen dugu, beste ikerketa batzuetan agertzen denarekin bat datorrena: gizonetzko ausarta, beldurgabea, irekia eta irmoa, adiskideen adiskide dena, beste pertsonenganako enpatia eta erreakzio afektiboegiak erreprimitzen dituen eta, sarri, frustrazioa edo ahulezia oldarkortasunaren bitartez baino erakusten ez dituen. Hainbat soziologok adierazi dutenez, horixe da maskulinitatearen mistika osatu duen gizonetzkoaren paradigma. Hala, besteengandik aldentzeko ezarritako distantziak ezaugarritzen duen arketipoa dugu; ez, ordea, elkartasunean, ulermenean edo errespetuan oinarriturikoa. Gizarte patriarkalak emandako botereari atxikita dagoen gizonetzkoa dugu, arau nagusiekin bat ez datozen beste maskulinitate eredu batzuk onartzen ez dituen. Tomék nabarmendu duen bezala, aipatu arketipoak antzekotasun handiak ditu telebistan edo filmeetan agertzen diren gaur egungo heroiekin. Norgehiagoka fisikoan oinarrituriko kiroletan eta jokoetan ere nagusitu den eredu ia bakarra dugu, jarduera horietan besteak garaitzeko eta onenen estatusa lortzeko bidetzat hartzen baita lankidetzat. Hartara, gizonetzko eredu horretan oldarkortasuna gizonetzkoaren berezko osagaitzat jotzen da (Tomé eta Rambla, 2001).

Bestetik, eta esandakoaren kontrapuntu gisa, gazteen diskurtsoan azaleratzen den feminitatearen arketipoak emakume sentibera irudikatzen du,

gizonaren etorreraren zain dagoena, maiz sexualitatea ezkututzen duena, eskuzabala, maitasuna eskaintza modura ulertzen duena, baina beste emakumeekin dituen hartuemanetan sentimendu negatiboak erakusten dituena. Nabarmena denez, arketipo horrek isolatu egiten ditu emakumeak eta eragotzi egiten du euren arteko lankidetzeta eta laguntza. Are gehiago, gizona ezarritako menerapenerako bidea zabaltzen dio emakumeari. Irudikapen horren arabera, badirudi zenbaitetan adin horietako maitasun- eta sexualitate-esparruetan desio femeninoa maskulinoaren mende jartzen dela. Horrezaz gain, gogoan dugun ikerketaren ondorioak beste ikerketa ugarik erakutsitako emaitzen ildo berean daude: azken horietan ere erakusten da gazteek eta nerabeek euren afektibitate harremanetan menderatze portaerak dituztela, bai eta horiek, sarritan, indarkeriazko harremanak eta jarrerak dauzkatala erantsita. Hainbestera non, maitasunezko errituaren eta sexu-elkartzeen azpian dauden balioek eta estereotipoek emakumeentzat oldarkorrak diren limurtze moldeen legitimazioa dakarten inplizituki.

Halatan, ikerketan argi geratu da genero-estereotipoek gazteen eta nerabeen sexualitatearen taxutze prozesuan daukaten garrantzia. Bada, gazteak jokamolde jakinen bidez hasten dira euren identitatea bereganatzen, eta jokamolde horiek gizona ezarritako eta emakumezkoentzat dauden itxaropenak zehazten dituzte. Beraz, gazteen baitako genero-estereotipoen azterketak ohiko maskulinitate- eta feminitate-moldeen inguruan dauden hausturak eta jarraitutasunak aurkitzea ahalbidetzen du, baita gaur egungo gazteen sozializazioan agertzen diren genero-ereduak ere.

Hala ere, estereotipoen azterketak badakar bestelako ondorioak: hain zuzen ere, estereotipo horiek eraikuntza sozio-kultural gisa duten izaera agerian jartzea, eta, ondorioz, Historian zehar eraiki diren feminitatearen eta maskulinitatearen eraikuntzak desnaturalizatzea. Beste modu batez adierazita, gazteen eta nerabeen afektibitate harremanen azpian dauden estereotipoak erakustean, sineste tradizionalen botere normatiboa higatu daiteke eta aldaketa kulturalak eragin daitezke emakumearen botere-jabetzeari dagokionez gizon-emakumeen arteko harremanen esparrurik intimoenetan. Izan ere, sexualitatea eta generoari buruzko azterketa askotan ikusi denez, maiz, emakumeen esanahi eta praktika sexualak euren ingurune sozialetan nagusi diren arau kulturaleri egindako erresistentzia edo egokitzapen moduak izan ohi dira.

2. METODOLOGIA

Ikerketak honako helburu hauek izan ditu: Bigarren Hezkuntzako eta unibertsitate hezkuntzako nerabeen nahiz gazteen arteko bikote-harreman afektibo eta sexualetan ager daitekeen biolentziari buruzko diagnostikoa egitea, gazteek genero-indarkeriari buruz egiten duten interpretazioa arretaz aztertzea, eta bikote harremanetan nahiz sentimenduen munduan izan-

dako bizipenei eta esperientziei aitortutako esanahian sakontzea. Horiek horrela, estrategia kuantitatiboa eta estrategia kualitatiboa elkartzen dituen metodologia erabili da.

2.1. Azterketa kuantitatiboa

Estrategia kuantitatiboa Unibertsitateko ikasleen generozko sozializazio prozesuaren deskribapena egiteko erabili da, harreman afektibo-sexualei buruzko iritziak eta bizipenak deskribatzeko, baita bikote harreman nahiz genero-indarkeriari buruzko ideiak ere jasotzeko. Erabilitako teknikari dagokionez, datuen ustiapena eta analisi estatistikoa onartzen dituen inkesta egituratu eta itxia erabili da. Inkesta honako esparru hauen inguruan taxutu da: 1. *Genero-sozializazioaren esparruak*: gazteek familia ingurunean, eskola esperientzietan eta hedabideen testuinguruan barneratzen dituzten balioak eta jarrerak emakumeen eta gizonen arteko harremanean dagoenez. 2. *Bikote harremanen edo/eta afektibitate harremanen esparrua*: gazteen balioak eta jarrerak helburu eta interes afektibo-sexualei dagokionez, bikotekide idealari buruzko haien ikusmoldea, eta bikote harremanetako genero-estereotipoak. 3. *Genero-indarkeriaren esparrua*: gazteek genero-indarkeriaren inguruan daukaten ezagutza- eta bizipen-maila, genero-indarkeriari buruzko estereotipoak, biolentzia hori azaltzeko egon litezkeen arrazoiak eta genero-indarkeria errotik kentzeko hartu beharreko neurriak.

Erabilitako analisi unitateak honako hauek izan dira: 2007/2008 ikasurtean EHUko Bilboko fakultate eta unibertsitate eskoletan matrikulaturiko ikasleak (neska-mutilak). Aztergaitzat hartutako kolektiboaren lagin adierazgarria egin da, aintzat hartuta aita ikasketetan erabilitako hizkuntzak (euskara eta gaztelania). Azken laginaren arabera, 832 inkesta bete ziren. $N = 2303$ gizabanakoz osatutako populazioarentzat, sexuaren araberrako $P = 60/Q = 40$ bariazioarekin eta %95,5eko konfiantzarekin, laginak \pm %3ko gehienezko errorea dauka.

2.2. Azterketa kualitatiboa

Ikerketaren atal honen helburua ez da izan gazteek genero-indarkeriaz, afektuen munduaz edo bikotearen ikusmoldeez dituzten iritziak deskribatzea analisi estatistiko adierazgarria erabiliz. Aitzitik, gai horiei guztiei esleitzen dieten esanahia aztertu nahi izan da. Era honetako planteamendua, beraz, ulertzeraz bideraturik dagoenez eta ez egiaztatzeraz, begirada kualitatiboan oinarritu da. Erabilitako teknikari dagokionez, azterketa kuantitatiboa eta kualitatiboa modurik egokienean elkartzeko ikerketa teknikak erabaki ondoren (Bericat, 1998; Callejo, 2001), talde eztabaidaren teknika kualita-

tiboan oinarrituriko azterketa enpirikoa diseinatu da, pentsatu baita teknika horrek gazte eta nerabeengandik berezko diskurtsoa ateratzea ahalbidetzen duela, diskurtso «politikoki zuzenetik» urrun kokaturikoa, alegia. Izan ere, modu askean eta konfiantza giroan mintzatzean, pertsonen zintzoki adierazten dituzte euren barreneko iritziak, sentimenduak, estereotipoak, afektibitate kokaguneak eta kontraesanak. Eta horrek guztiak aberastasuna ematen dio interpretazio analisiari (Ibáñez, 1986, 1992a, 1992b; Canales eta Peinado, 1994; Denzin eta Lincoln, 1994). Eztabaida taldeen dinamika hurrengo gune hauen inguruan egituratu da: 1. Gazteen eta nerabeen estrategiak afektibitate harremanak abiatzean eta estrategia eta harreman horien azpian dauden estereotipoak. 2. Gazteen eta nerabeen ikuspegia maitasun-eta bikote-harremani buruz: jarrerak, portaerak eta itxaropenak. 3. Gazteen eta nerabeen irudikapenak eta estereotipoak genero-indarkeriaz: kontzeptua, erasotzaileen eta biktimen soslaiak, arrazoiak eta, azkenik, hartu beharreko neurriak edo egon litezkeen irtenbideak.

Zein izan da erabilitako analisi unitatea? Eztabaida taldeak osatu dira, batetik, Bilboko Bigarren Hezkuntzako institutu publikoetako eta Heziketa Zikloetako 15-17 urte bitarteko ikasleekin eta, bestetik, Bilboko EHUKo fakultate eta unibertsitate eskoletako 1. mailako ikasleekin. Par- taideen hautaketa ez da ausazkoa izan. Taldeen diseinua honako erregular- tasun objektiboek sortutako *habitus*-aren arabera egin da: sexua, adina eta etorkin/autoktono irizpidea. Hauxe izan da Unibertsitateko ikasleen lagin estrategikoa: 18-20 urte bitartekoak, Bilboko EHUKo fakultate eta uniber- tsitate eskoletako 1. mailan matrikulatutakoak. Guztira, 18-20 urte bitarte- koen artean 5 eztabaida talde egin dira. Horietatik bi neskez osaturik egon dira, bi mutilez, eta azkena bitarikoa izan da. Bestalde, honako hau da Bi- garren Hezkuntzako ikasleen lagin estrategikoa: 15-17 urte bitartekoak, Bilboko institutu publikoetako DBHn, Batxilergoan eta Goi Mailako He- ziketa Zikloetan matrikulatutakoak. Guztira, 6 eztabaida talde egin dira. Horietatik bi neskez osaturik egon dira, bi mutilez, eta beste biak bitari- koak izan dira.

Artikulu honetan, batik bat analisi kualitatiboaren emaitzetan oinarri- tutako genero-estereotipoei buruzko gogoeta prestatu da, eta gogoeta hori analisi kuantitatiboan lortutako zenbait datuekin osatu da.

3. EMAITZEN INTERPRETAZIOA

3.1. Genero-estereotipoak mutilen artean

Nola ikusten dute euren burua mutil gazteek eta nerabeek afektibitate- ren eta sexuaren esparruetan? Eztabaida taldeetan —eta ez dago gai hone- tan Unibertsitateko eta Unibertsitatez kanpoko ikasleen artean desberdinta- sun handirik—, biologiak menderatutako gizona-koaren irudia nagusitzen

zaigu: itxura denez, sen hutsez dihardute mutilek, hau da, sexualitateak bultzatuta, eta ez hainbeste arrazoiak edo sentimenduek. Hala, hasierako hurbilketan lehentasuna sexu-harremanari ematen diotela aitortzen dute mutilek beraiek. Gorte egitearen hastapenetan mutilak ez dira kezkatzen hasten duten harremanak aurrera jarraitzeko aukerarik izango duen ala ez. Hartara, arreta handiagoa jartzen dute pertsonaren itxura fisikoa, nortasunean baino. Adierazgarria da inkestan bikotekide idealaren ezaugarriak ematen zaizkienean *erakargari eta eder izateari* garrantzia ematen diola nesken %48,1ek eta mutilen %80,2k. Hala ere, erakarpen fisikoa baino harago doan interesa sentitzen badute aurrerago, mutilak beste kualitate batzuk eskatzen hasten dira neskengan, esate baterako, alaiak, buruargiak eta jendekinak izan daitezela. Haatik, nabarmentzekoa da ia ez dutela sentimeneen mundua aipatzen, hala nola, samurtasuna, txera, bestea ulertzeko eta entzuteko gaitasuna...

Mutilei rol aktiboa dagokie gorte egitearen erritualean. Iniziatiba —baita, zenbaitetan, oldarkortasuna ere— erakutsi behar dute hurbilketa afektibo-sexualean. Hainbestera, non lagunen aurrean jarrera horiez harro agertzen diren. Alkohola eta bestelako substantziak hartzeak jarrera hori atxikitzen laguntzen die.

MUTILA. Sí, el chico es más impulsivo, igual (...)

MUTILA. Sí, generalmente es más impulsivo, es más normal que un tío vaya a partirle la cara a otro tío porque ha estado hablando con su novia (...) (Mutilen taldea BHI, 2. ikasturtea)

MUTILA 4. Yo veo que los chicos somos más carne débil, o sea, que si nos ofrecen no lo pensamos tanto, habrá alguno que no, pero en general es así (...) No sé cómo decirte, estamos, tenemos las hormonas más alborotadas. Las chicas son, no sé, tienen más cabeza, nosotros (...) (Mutilen taldea 1. IES)

Gizonezkoek ez dituzte desleialtasunak barkatzen, eta oldarkortasun handiagoz erantzuten diete jeloskortasunei eta gerta litezkeen engainuei. Bestalde, afektibitate harremanetan «euren tartea» gorde behar dute, alegia, lagunei eta zaletasunei eskainitako denbora. Sentimenduak ez dituzte gehiegi adierazi behar harremanetan. Zalantzarik gabe, oinarri horietatik abiatuta *mutilek ez dutela negarrik egiten* ondoriozta daiteke (Askew eta Ross, 1991). Hala, ez dira ulertzen aipatu eredu horrekin bat ez datozen mutilen portaerak, hau da, sentimenduen eta adierazpen ez oldarkorren bitartez ahulezia, tristura eta frustrazioa agertzeko gai diren mutilenak, hitz batean, gizonezkoaren eredu nagusiarekin bat ez datozenen jokabideak.

MUTILA 1. No, yo creo, ves a una tía llorando en la calle y, vale, vas por ella; pero, ves a un tío llorando y pasas de él.

MUTILA 2. Chico, depende del por qué. Si te has dado un coscorrón con él y te pones a llorar, pues oye, te pones. Sí, ja, ja, ¡pero con esta edad! Pero, si el tío está llorando por la novia o así, es que no me quedo mirando, te lo juro, digo ¡hostia, está llorando! (...)

MUTILA 1. No se entiende. (Bitariko taldea. BHI, 1. ikasturtea)

Hala ere, gazteen eta nerabeen diskurtsoan agertzen den gizonetzko arketipo hori leunduago ikusten da inkestek eskainitako datuetan. Horrela, bikote harremanetako estereotipoak atzemateko item-ei emandako erantzunetan, Unibertsitateko ikasleak urundu egiten dira ohiko maskulinitate eredutik hein handi batean. Portzentajeak garaiak diren arren, emakume eta gizonen %35ek ezetz erantzuten dio *gizonetzkoak emakumezkoak baino lehiakorragoak eta oldarkorragoak dira* baieztapenari, baina inkestaturiko %45ek uste du gizonen emakumeek baino sexu gehiago behar dutela. Ildo horretan, nabarmentzekoak dira metodologia kuantitatiboaren eta kualitatiboaren arabera jasotako informazioetan behin baino gehiagotan agertzen diren kontraesanak.

Bai inkestaren emaitzetan, bai eztabaida taldeetan, mutil gazteek eta nerabeek gogoan daukaten emakumeen gaineko estereotipoa osagarritasun sexistaren ereduari dagokio: horrela, gizonetzkoaren esentzia oldarkorri emakumezko esentzia sentibera eta adeitsua kontrajartzen zaio. Era horretan, eztabaida taldeetako partaideen diskurtsoan emakumeak sentibera, samur, hauskor, eraman handiko eta adeitsu irudikatu dira. Afektibitate elkartzetan rol pasiboa hartzen dute, hau da, gizonetzkoaren etorreraren zain daude eraman onez, eta, gorte egitean, euren rolaren edukiak eragotzi egiten die sexualitatea eta desioak modu argian erakustea. Ondorioz, ez dira zuzenean joaten bestearengana, gizonetzkoek egiten duten bezala, limurtzearen jokoari ekin behar izaten diote lehenago. Hartara, sexualitatearen objektu izan ohi dira gehienetan, eta gutxitan subjektu.

Adierazgarria da mutilek nesken munduari buruz agertzen duten ezjakintasuna. Izan ere, harreman afektibo-sexualak hasterakoan ez dira ia gai neskek gizonetzkoengan aintzat hartzen dituzten kualitateak eta ezaugarriak aipatzeko. Mutilen ustea sinplea da: ongi tratatu ditzatela nahi dute neskek. Eta erabat sinetsirik daude, mutilek ez bezala, neskek garrantzi gutxiago ematen diotela itxura fisikoari. Halaber, pentsatzen dute neskek harremanezko eta afektibitatezko beste osagai batzuekin lotzen dutela sexua, beraiek baino luzerago begiratzen dutela harreman afektibo-sexuala has-tean eta, ondorioz, ezaugarri horiek euren desioak eta sexu-fantasiak ezkutatzeraz behartzen dituztela hasierako elkartzetan. Beraz, nola edo hala, mutilak jakitun daude neskek disimulutik abiatuta hasten dituztela erritual afektibo-sexualak gehienetan.

MUTILA 4. Las chicas son las que esperan.

MUTILA 5. Las chicas son más elegantes que nosotros. Nosotros, unos degenerados. (Mutilen taldea. Unibertsitatea, 2. ikasturtea)

Eztabaida taldeetako gazteen eta nerabeen diskurtsoa bat dator analisi kuantitatiboan lortutako emaitzekin. Izan ere, neska-mutil unibertsitateko gehiengoak baieztatu erantzuna ematen die honako baieztapenei: *emakumeak sentiberak eta txeratsuk dira* (%75,4) eta *emakumeei babesturik sentitzea gustatzen zaie* (%82), nahiz eta irudikapen estereotipatuak gainditu egiten diren beste atal batzuetan: *gizonezkoak emakumezkoak baino independenteagoak dira* (soilik %18,6).

3.2. Genero-estereotipoak nesken artean

Esan dugun moduan, euren ikaskide gizonezkoek bezala, Unibertsitateko neska ikasle gehienek adostasuna agertu dute goian aipatutako baieztapenekin (*emakumeak sentiberak eta txeratsuk dira* eta *emakumeei babesturik sentitzea gustatzen zaie*, alegia). Halaber, eztabaida taldeetan gazteek eta nerabeek emakumeen gaineko irudi jakina eskaintzen dute: izaki sentimental, amultsua eta samurra, gizonezkoaren babesa eskatzen duena. Baina hauxe da gauzarik esanguratsuena: adinez gazteak izan arren, ikerketan parte hartu duten neskek euren buruaz daukaten iritzia gizartean modu tradizionalen «emakume zintzoari» esleituriko ezaugarrien ispilu islatzailea dugu. Eztabaida taldeetan beren gain hartzen dute neskek betekizun pasiboa gorte egite prozesuan, sentimentalagotzat eta mutilekin ibiltzean zuhurragotzat jotzen dute euren burua, desioak kontrolatzen dakitela eta sexuarekin ez daudela haiek bezain itsuturik uste dute. Gainera, elkar-tze unean eta gorte egitean, instante atsegingarri hutsa baino harago, etorkizunari begirako pentsamoldea agertzen dute.

NESKA. Esperas a que vengan (...)

NESKA. También está muy inculcado eso de que la chica que va es como..., tampoco el chico le hace mucho caso, ¿eh? Porque igual piensa que es muy lanzada (...)

NESKA 7. Yo creo que nosotras somos como más discretas (...)

NESKA 5. Los tíos van a ligar a las tías, y las chicas igual hacemos «le miro, no le miro, me acerco, voy al baño...». El chico es más directo. Dice: oye, ¿bailas conmigo? Pero, es más directo (barreak)...

NESKA. No, porque los chicos piensan, si están con ella, bueno, están con ella hoy, y pasa hoy o mañana y lo que tengan que estar, y ya cuando terminen con ella, pues otra, y así. En cambio, las chicas no, no sé, están con ellos y no piensan que mañana ya se va a acabar y va a estar con otro ¿no? (Nesken taldea. 1. IES)

Ildo beretik, mutilek ez bezala, neskek ez dituzte ezinbestean uztartzen erakarpena eta edertasun fisikoa, eta zailtasunak dauzkate itxura fisikoa

nortasuna osatzen duten ezaugarrietatik bereizteko. Hartara, mutilen antzera alkoholez eta sexuz kutsaturiko festa-kulturaren partaide diren arren, neskek harreman egonkorragoa nahi dute, maitasunaren eta errespetuaren afektibitate osagaiei lotutakoa.

Harreman erduei buruz inkestan galdetuta, neska-mutil unibertsitarioen %80k uste du emakumeak ez duela zertan oztana izan harremana ondo joan dadin. Erantzunen portzentaje horrek ohiko ikuspegiei buruzko haustura adierazten du. Hala ere, eztabaida taldeetan neska gehienek ez dute zalantzan jartzen euren rol pasiboa gorte egiteari dagokionez. Bestela adierazita, ez dute rol hori gizartean nagusi diren emakumezkoen eta gizonezkoen arteko desberdintasun harremanen ispilutzat hartzen afektibitateari eta sexualitateari dagokionez, euren sentiberatasun handiagoaren emaitza logikotzat baizik. Halatan, jaso ditzaketan ezetzek mutilak baino gehiago hunkituko dituzte neskak.

NESKA. A los tíos les importa menos que digas que no (...) Que digas que no, pues a la siguiente. Y a una tía le importa más. Que me ha dicho que no, joé. Entonces estás toda la noche hundida. (Nesken taldea. Unibertsitatea, 1. ikasturtea)

Autoirudi horrekin bat, neskek uste dute konpromiso handiagoa hartzen dutela harreman afektiboetan eta, ondorioz, mutilak baino fidelagoak direla. Zergatik? Belaunaldiz belaunaldi emakumeen bereizgarri izan den arrazoia ematen dute: emakumeek hobeto eramaten dituzte bikote bizitzako gorabeherak eta, beharrezkoa denean, amore emateko gaitasun handiagoa daukate.

¿Qué diferencias hay [entre chicas y chicos]?

NESKA. No sé. Igual, las chicas en muchos casos están más involucradas en la relación.

NESKA. Y luego para ellos los amigos es lo primero (...)

¿Y quiénes son más fieles en la pareja?

DENEK AHO BATEZ. Las chicas. (Bitariko taldea. BHI)

Azkenik, nesken diskurtsoan emakumearen ohiko irudi hori irudikatzen duen beste ezaugarri bat agertzen da: desioa adieraztea galarazita duen emakume horrek, zenbaitetan, osagai kuasi-masokistak dauzka bere baitan. Izan ere, sufriarazi egiten dioten mutilak ditu gustuko, aurre egiten diotenak. Hitz batean, «mutil gaiztoak».

¿Qué os gusta a las tías y qué no os gusta?

NESKA 8. Yo creo que somos un poco tontas, yo creo, en plan de que te vengán ahí, y que te diga directamente no sé qué, a mi por lo menos,

no, no, que te lo dé todo fácil, es como que vaya ¿sabes? Que te haga un poco sufrir, luego dices ¡joé, qué bobo!, pero creo que nos gusta más.

O sea, que el tío se resista.

DENEK AHO BATEZ. Sí, sí. (Nesken taldea. Unibertsitatea, 2. ikasturtea)

Neskek mutilei buruz egiten duten erretratua bat al dator mutilek euren buruaz duten irudikapenarekin? Lehen batean, guztiz bat dator. Ia aho batez, neskek uste dute gorte egitearen hastapenetan mutilak sexu bila baino ez dabiltzala, biologiaren eta bulkaden eraginpean dihardutela, itzulingerurik gabe dabiltzala eta zuzenean doazela «euren intereseko» gauzetara. Neskek argi daukate mutilak nesketan dabiltzanean gorputzean jartzen dutela arreta lehendabizi, neskek baino garrantzi handiagoa ematen diotela erakarpen fisikoari, eta eduki erotiko eta sexual handiz bizi dituztela gorte egitearen erritualak. Ildo horretan, nortasuna, izaera, adimena, etab., bigarren mailako osagai dira. «Emakumezaletzat» eta «berotzat» jotzen dituzte neskek.

¿Sí? ¿Andan salidos los chicos?

NESKA 4. Si es que van a lo que van, se les nota muchísimo, porque lo demuestran demasiado.

¿Quién sale más con esa idea? [ir a pillar]

DENEK. Los chicos.

NESKA 4. Ya, pero de por sí son más ciegos, muchísimo más. (Nesken taldea. Unibertsitatea, 2. ikasturtea)

Ildo berari jarraiki, institutuetakoko neska nerabeek uste dute mutilak sorgor agertzen direla amodio saioetan: zuzenean doaz sexura eta, sarritan, modu landugabea aritzen dira neskekin dituzten harremanetan. Hala ere, esanguratsua da ez dutela hori guztia kritikatzeko, edo ez direla oldartzen mutilek neskak gauza bihurtzen dituztenean. Aitzitik, anekdota dibertigarri modura aipatzen dute, garrantzi handirik eman gabe. Hartara, azpian dauden genero-estereotipoak naturalizatzean eta barneratzean, neska nerabeek eta gazteek gizonezkoek definitutako arauen barruan jokatu behar dute limurtze jokoak, hau da, ezaugarri femeninoen balio galtzearen testuinguruan.

A la hora de ligar

NESKA. Los tíos son muy bastos.

NESKA 1. Sin conocerte te llaman chochete (barreak) (Nesken taldea. BHI, 2. ikasturtea)

NESKA. Van más a lo bestia.

¿Más a lo bestia?

NESKA. ¡¡¡Se te tiran y vengas...!!! (barreak) (Nesken taldea. BHI, 1. ikasturtea)

Bestalde, adostasuna dago nesken artean, mutilek sentimenduei emandako lekua aintzat hartzean. Haien diskurtsoak argi uzten du maskulinitatearen definizio sozialean tarte txikia dagoela sentimenduei loturik agertzen denarentzat. Mutilek zailtasunak dauzkate sentimenduak eta emozioak hitzez adierazteko. Neskek neska lagunen artean adierazten dituzte euren kezkek, itxaropenak, maitasunezko arrakastak eta porrotak. Mutilak, ordea, nor bere baitara biltzen dira, eta ondo kostata hitz egiten dute zintzotasunez lagun minenekin.

NESKA 5. Hay que diferenciar el tipo de chico, entre el salidorro de turno, y tendrá a sus colegas que estará hablando me he tirado a ésta o me he tirado a la otra. Pero los demás, sí son mucho más cerrados, o se lo cuentan a un colega, con el que más confianza tienen. Las chicas no. Somos mucho más..., da igual, contamos todo, no callamos ¿eh? (Nesken taldea. Unibertsitatea, 2. ikasturtea)

3.3. Estereotipoak eta gizarte desbideratzearen definizioa

Nesken eta mutilen arteko desberdintasunak euren jokabideei eta rol-itxaropenei buruz egindako balorazioetan azaleratzen dira. Adierazgarria da rol femeninoak markatutako arauetatik desbideratutako neskek jasaten duten zigorraren gogortasuna. Irmotasun horrek erakusten du, batetik, emakumeek bizi duten desberdintasunezko egoera eta, bestetik, oso tradizionalak diren genero-ereduen iraupena.

Ildo horretatik, modu publikoan eta nabarmenean jarduera sexual oso aktiboa daukaten gizonezkoak positiboki baloratzen dira: zenbat eta jarduera sexual handiagoa izan, zenbat eta konkista eta «garaikur» gehiago erakutsi, hainbat eta prestigio sozial handiagoa lortzen dute. Alderantziz, neskei dagokienez, sozialki estigmatizaturik dago jarduera sexual promiskuoa arrandiaz erakustea, gorte egitean jarrera aktiboa eta zuzena agertzea edo argi eta garbi erakustea irritsa eta erakarpen sexuala. Izan ere, neskak sexua maitasun erromantikoari lotzeko heziak izan dira.

MUTILA 1. Nosotros sí, porque cuanto más follemos, mejor. Pero ellas no, porque si le dan todos, es una puta, digamos (Mutilen taldea. BHI, 1. ikasturtea)

Y las chicas ¿no son directas? ¿No sois directas vosotras?

NESKA 2. Si es una guarra, pues sí (barreak)

Una chica que es directa ¿por qué es una guarra?

NESKA 4. No es eso, pero si es una...

NESKA 1. Depende de las maneras de actuar que tenga.

NESKA 3. Suelta, fresca...

NESKA 4. Tú puedes ser directa, pero cortándote. Esas no se cortan
(Nesken taldea. BHI, 2. ikasturtea)

Testuinguru horretan, indarra hartzen dute genero-estereotipoek: neskatan «ongi» egiten duten mutilak «garaile» modura hautematen dira, eta balio sinbolikoa metatzen dute harremanen merkatuan. Aldiz, gauza bera egiten saiatzen diren neskak balio gutxitu egiten dira sexuaren merkatuan. Hala, haiek konkistatzeak ez du dagoeneko inolako meriturik gizezkoentzat.

A la hora de ligar ¿qué diríais que está mal visto? ¿Qué cosas se ven mal en las chicas?

MUTILA 5. Una tía que se lo haga con todos.

MUTILA 2. La típica golfa.

MUTILA 6. La golfa que se va con todos (...)

MUTILA 2. Dices ¡bua! Te has liado a la golfa, no tienes mérito, ya no (Mutilen taldea. Unibertsitatea, 2. ikasturtea)

Eztabaida taldeetan parte hartu duten neska nerabeek eta gazteek ez dute, hala ere, estigma horren azpian dagoen botere desberdintasuna kritikatzeko. Are gehiago, onartu egiten dute, zenbaitetan, neskek beraiek mutilek baino zentsura sendoagoa ezartzen dutela.

NESKA. Si una chica se enrolla con mucha gente, pues igual es una fresca. Pero, si un chico se enrolla con muchas chicas ¡bua! Es que es el lobo del grupo. Siempre ha sido así.

(...) ¿Las chicas también criticáis a las chicas que se enrollan con muchos chicos?

DENEK. Sí.

NESKA. O sea, defendemos que no se debe hacer, pero lo hacemos
(Nesken taldea. Unibertsitatea, 1. ikasturtea)

Gazteen eta nerabeen baitan estigmak duen onspena genero-estereotipoen sustraitzearen ondorioa da. Genero-desberdintasunak naturalizatzean, genero-arauetatik gerta litezkeen desbideratzeak pertsonaren kualitatetzat jotzen dituzte, baita ondorengo estigma bera ere. Ez dituzte inolaz ere aztertzen ezarritako etiketen azpian dauden botere eta kontrolezko osagaiak. Bestela adierazita, ez dituzte arauak eta etiketak talde definizioen emaitzat hartzen eta, ondorioz, ez dute estigma ere gizartearen sorkuntza gisa ulertzen, Ristek aipatzen duenaren ildotik: «*ella desviadola es alguien a*

quien se ha aplicado con éxito la etiqueta, y el comportamiento desviado es el de las personas así etiquetadas» (Rist, 1999: 617. orr.). Azken batean, desbideratze moduan zehazten den jokabidea eta desbideratzaile moduan sailkaturiko pertsona gorabehera sozial zenbaiten ondorioak izan ohi dira, eta gorabehera horietan eragin handia izan ohi dute aipatu sailkapenak sendotzeko boterea daukatenez. Neska-mutilen sexu-jokamoldeei dagokienez, gizarte eredu patriarkalak —eta, haren baitan, gizonezkoek—, portaera desbideratuari buruzko definizio hegemonikoak ezartzeko botere simbolikoa daukate. Bestalde, emakumeak «emagaldu» moduan estigmatizatzeak bidea ematen die gehiegikeria eta biolentziatzko jokamoldeei. Villaseñor eta Castañedak diotenez: «*Visualizar a la víctima como propiciadora busca eximir de culpa al sujeto que ejerce la violencia (...) La inculpación de las víctimas y la impunidad de los victimarios son dos importantes mecanismos que sostienen la violencia sexual y a la vez constituyen una forma más de violencia, la violencia es sostenida mediante la violencia»* (Villaseñor Farías eta Castañeda Torres, 2003: 52).

Eztabaida taldeetan parte hartu duten gazteek eta nerabeek ezin hobeto daukate barneratuta genero-arauak. Horregatik, adierazten dituzte neskek beraiek sexualitatean gizarteak rol femeninoari esleitutako eredutik desbideratzen diren emakumei buruzko iritzirik gogorrenak. Ildo horretan, eztabaida taldeetan maiz sortu da honako dikotomia hau: batetik, «bere burua errespetarazteko eginkizuna daukan emakumea» eta, bestetik, «ohikoa denez, aprobetxatzeko asmoz dabilen gizona».

Hartara, genero-rolak hain zurrun agertzen diren munduan, zer egiten dute gorte egitearen erritualari buruzko arauak hausten saiatzen diren gazteek eta nerabeek, estigmaren laidoan erori nahi ez badute? Neskek garatzen dituzten estrategiak oso loturik daude esleitu zaizkien rolekin. Iniziatiba hartzea eragozten duen jarrera otzan eta pasiboa erakutsi behar dutenez —bestela, «emakume gaiztoen» kategorian sailkatuak izango lirake—, gehiengoak honako aukeraren alde egiten du: zain egotea erabakitzen dute, baina selektiboak izanez. Emakumeak, emagalduen taldeko kide izan gura ez badu, bere buruari balioa eman behar dio, hau da, «gogorraren» itxurak egin behar ditu. Hala ere, une jakin batean, eta arrazoiak edozein direla ere, gorte egitea arautzen duten arauak urratu gura dituztenek alkohola erabiltzen dute euren «buru galtzea» azaltzeko aitzakiatzat. Horrela, azken finean, une jakin batean neskak erakutsitako herabetasunik eza sexuari dagokionez, ezinbestean zuritu behar da kanpoko faktoreei egotziz, noiznolako faktoreei, alegia —alkoholaren eragina edo antzeko aitzakiak izaten dira ohikoenak—.

NESKA. Y también porque al salir de fiesta igual que si bebas, no sé qué. Si pasa algo malo es como que le puedes echar la culpa a la bebida. Es que bebí, cómo iba..., y, en realidad habías bebido un kalimotxo o una cerveza. Pero, claro cuando estás aquí, ésta..., eres tú, entonces...

NESKA. Con la excusa de, bah, no me acuerdo muy bien.

NESKA. Claro.

NESKA. Joé, ¡cómo hice esto!, cómo tal... (Nesken taldea. Unibertsitatea, I. ikasturtea)

Gizonezkoei dagokienez, «gizontasun eskaseko» estereotipo klasiakoaren barruan dauden mutil gazteengan jartzen da estigma: ezaugarri femeninoak dituztenak, sentiberak eta lotsatiak direnak, segurtasun gutxiak, edo sexualitate markaturik ez dutenak... Neskek ere, maskulinitatearen erakustaldian mutil batzuek egiten dituzten gehiegikeriak etsian eramaten dituzten arren, arbuiatu egiten dute gizonezko arketipotik urruntzen den mutila.

3.4. **Begirada bat eskolari eta bestelako sozializazio guneei**

Bigarren hezkuntzako eta unibertsitate hezkuntzako ikasleekin egin-dako ikerketak erakutsi digu gaur egungo gazteak ideia, balio eta irudikapen jakin batzuk birsortzen diren testuinguru kultural batean sozializatu dira: maitasunaz, maitasun ereduez eta erakargarritasun-eredu maskulinoez eta femeninoez sortutako irudikapenak dira aipaturikoak, menerapen-egitura maskulinoari dagozkionak. Eta, jakina, orain arte deskribatu dugun ildotik bideratzen dituzte euren ideia eta balio horiek harreman afektibosexual edota bikotezkoetan. Horregatik, premiazkoa da gizarteak, bere sozializazio guneen bitartez, erreferentzia moduan eskaintzen dizkien eredu maskulinoak eta femeninoak arretaz aztertzea.

Horiek horrela, familia dugu ikerketa kuantitatiboan aztertutako lehen sozializazio gune nagusia. Etxeko lanen antolaketari dagokionez, ikertutako gazteen familiak berdintasuneko eredu tarantzko aldaketa bidean daudela erakusten digute emaitzek, baina oraindik ere desberdintasun nabarmenak atzematen dira etxeko jarduera horiek maskulino eta femenino gisa definitzen dituzten genero-estereotipoen ondorioz. Bestalde, familia horietan bizikidetzarako arauak egon ohi dira eta bikoteko bi kideen arteko aginte partekatua onartzen da —aginte eredu horrek dagoeneko familia ereduaren aldaketaren berri ematen digu—. Hala ere, trantsiziozko familia eredu horretan, ama izan ohi da batik bat arauak ezartzea eskatzen duena. Ordena sinbolikoaren sozializazioa aintzat hartzen badugu —hau da, afektibitate harremanak eraikitze erabilitako balioei buruzko sozializazioa—, sentimenduen mundua amaren esparruan kokatzen dela ikusten da. Aldiz, aitarenganako konfiantza, garrantzizkoa izanda ere, ez da ohikoa. Hala, gazteek euren gurasoekin dauzkaten komunikazio- eta afektibitate-harremanek erakusten digutenez, amarekin aitarekin baino gehiago hitz egiten dute sentimenduei eta afektibitate harremanei buruz, lagunekin dauzkaten harreman eta gatazkei buruz, baita sexu-harremanei buruz ere. Dena den, sexu-harre-

manen ikasketa, nagusiki, familiaz kanpoko bestelako sozializazio guneen mende dago. Izan ere, nesken %59k eta mutilen %73k adierazten dute ez dutela ez amarekin ez aitarekin hitz egiten gai horiez.

Familiaren baitako komunikazioaren eta konfiantza giroaren sorreran amak daukan protagonismoak argi erakusten digu indarrean dagoen familia ereduan emozioen unibertsoaren sublimazioa ordezkaten duela amak: besteak zaintzea eta besteen alde aritzea, hain zuzen ere, jarduera horietan eraikitzen da haren identitate soziala, berezko esparrurik osatu gabe. Bestalde, aitak arrazionaltasuna eta esparruen arteko bereizketa ordezkaten jarraitzen du. Ezaugarri horrek haren identitate soziala lanaren eta zaletasunen inguruan eraiki ahal izatea ahalbidetzen du, eta ez bikotearen eta familiaren inguruan. Hartara, etxeko lanen sexu-banaketari dagokionez familia ereduak berdintasunezko harremanetarantz aldatzen ari bada ere, ezin genezake gauza bera esan egitura sinbolikoetan generoari esleituriko balioen transmisioari dagokionez. Ildo horretan, gaur egun ez dago ordena sinboliko nagusia deseraikitzeke sozializazio ekintzarik familiaren esparruan. Beste modu batez adierazita, familiak ez ditu afektibitate- eta sexu-harremanen mundua pentsatzeko eta egiteko eredu berriak transmititzen. Aitzitik, menderatze-egitura maskulinoetatik eraikitako ereduak birsortzen ditu batik bat.

Hedabideek eskainitako sozializazio lausoa eta anonimoa izan da ikeruriko bigarren gunea. Gazteen kontsumo mediatikoak ere gizartean nagusi den ordena sinbolikoa indartzen dituen balioetara igortzen gaitu. Unibertsitateko ikasleen kontsumorik ohikoenak doako prentsa (%54), sareko musika (%40) eta telebistako albistegiak (%35) dira. Ez dago sexuen arteko desberdintasunik maiztasunez kontsumituriko produktu mediatiko horietan, baina bai neskek eta mutilek kontsumituriko produkturik estereotipatuenean: telebistako kirol programak eta ekintza filmak dira mutilen %80aren aukerak; *reality show*ak (%60), telebista eta prentsa arrosa (%40), eta modazko aldizkariak eta webguneak (%45) neska gazteenak. Joera horiek berberak ikusten dira %40k erosten dituen argitalpenetan zinema, telebista, kirola, literatura eta Historiako pertsona ospetsuen (gizonezko nahiz emakumezkoen) izenak aipatzen dituztenean eta haiengan baloraturiko ezaugarriak zehazten dituztenean ere. Ildo horretatik, erakargarritasun fisikoa dugu neskek gizaki entzutetsuen ezaugarrien artean aukeraturiko kategoria. Aldiz, mutilen aukeretan *dibertigarria izatea*, *irabazitako dirua*, *ahalmen sortzailea* eta *pentsamoldeak/lideiak* nabarmentzen dira. Hala, aukera horiek guztiek gizonezko eta emakumezkoen arrakasta bereizgarria eraikitzen duten balioak erakusten dizkigute: neskei dagokienez, erakargarritasun fisikoaren eta edertasunaren gainean eraikitako arrakasta atzematen dugu; mutilei dagokienez, berriz, arrakasta soziala arrazionaltasunaren eta gaitasun sozialen gainean eraikitzen da.

Ikerketan nabarmentzen denez, menderatze maskulinoaren egiturak birsortzen dituzten instituzioen artean, badirudi eskolak beste sozializa-

zio gune batzuk baino modu esplizituagoan ekin diola gaur egungo sozia-
lizazio ereduak aldatzeko ahaleginari. Ikerketan parte hartu duten ikasleek
aurreko urteetan bizi izan duten eskolako esperientziaren oroimen argiak
dauzkate inkestan aipatu zaizkien eskola programei buruz. Horrela, %80
baino gehiago oroitzen da drogamenpekotasunaren prebentzioaz, inguru-
menaren zaintzaz, nerabeen arteko afektibitate eta sexualitateaz eta ema-
kumeen eta gizonen arteko berdintasunaz jasotako argibideez; %60 baino
gehiago ikasgeletako biolentziaz, gizarteko biolentziaz, gatazken konpon-
bideaz eta genero-indarkeriaz jasotakoez. Eskolak transmitituriko balioei
dagokienez, %60k adierazten du nahiko/asko transmititu zaizkiela ondo-
rengo balioak: elkartasuna eta konpromisoa, erantzukizuna, emakumeen
eta gizonen arteko berdintasuna, eta desberdinekiko errespetua. Eta %50ek
baino gehiagok adierazten du nahiko/asko transmititu zaizkiela ondoren-
goak: autonomia, norberaren estimua, autokontrola eta justiziaren zentzua.
Baina, azken balio horiei dagokienez, nesken proportzioa mutilena baino
handiagoa da. Hala, datuek adierazten dutenaren arabera, badirudi esko-
laren estrategia sozializatzaile berriek neskengan mutilengan baino era-
gin handiagoa izan dutela, eta ikusi egin beharko litzateke proiektu horien
lehentasunezko ardatza horixe zen ala ez.

Hartara, Unibertsitatez kanpoko euskal hezkuntza sistemaren oinarrie-
tako bat izanik, balioen heziketak hezkuntza berrikuntzari lotutako proiektu
askoren ezarpena ahalbidetu du. Dena den, balio esplizituen lanketa horre-
tan hezkuntza esparruko profesional batzuek egindako ahaleginak nabar-
menak izan diren arren, horrek ez du esan nahi ekimen zehatz guztiak
modu egokian bideratu direnik beti. Hala, nerabeen eta gazteen afektibi-
tate- eta sexu-harremanen esperientziei dagokienez arriskuen prebentzioan
(kontrazepzio metodoen ezagutzan, esate baterako) jarri da arreta askotan.
Baina, ikerketa feministak eta heziketa-praktikak berak erakutsi dute gaz-
teen arteko afektibitate- eta sexu-harremanen gakoa auzi horietan ez ezik
gazteek eta nerabeek «neska zintzoa» eta «benetako gizonezkoa» izateari
buruz barneratuta dauzkaten ideietan eta irudikapenetan dagoela (Sanchis,
2006). Ildo horretan, koedukazioaren balioek garrantzi handia hartzen dute
eskolaren testuinguruan.

Maskulinitatea eta feminitatea ez dira oinarritzen haurtzaroan eta nera-
bezeroan betirako ikasitako rol sexual eta sozialetan soilik. Aitzitik, identi-
tate horien eraikuntza kontraesanez beteriko prozesu etengabea garatzen
dela pentsatu behar dugu, eta behin eta berriro defini daitezkeela bizitzan
zehar buruturiko ekintzetan. Esaterako, biolentzia bideratzen duten jarrerak
desikasteko ekimenak egin daitezke, maskulinitateari eta feminitateari es-
leitutako balioak, ekintza moldeak eta rolak zalantzan jartzen badira modu
sistematikoan. Horregatik, hezkuntza sistemak maskulinitate- eta feminitate-
eredu horien eraikuntzan duen parte-hartzea aztertu beharra dago. Ildo
horretatik, ikastetxeetan egin beharreko diagnostikorako autore batzuek
zehaztu dituzten proposamenak hartu behar dira aintzat (Tomé eta Rifà,

2007). Lehendabiziko urratsetako bat, ikastetxeetan normalizaturik dauden era guztietako eredu estereotipatuak zalantzan jartzea litzateke: jolas-tokian mota jakin bateko jokoeak betetzen duten espazioa aztertzea, ohiko pentsamoldeak eta praktikak agerian uztea eta, oro ohar, ohartzea kultura sexistaren ondorioz jendeak barneratutako dauzkagun hainbat egoera sortzen direla behin eta berriro (adibidez, neskak mutilak baino langileagoak direla adierazten da sarri, eta gero mutilei esleitzen zaie adimenaren bezeko gaitasuna; mutilei eskatzen zaie gauza astunak mugi ditzaten; ikasgelako mutil bihurria neskato lasai eta langilearen ondoan esertzen da...). Bigarrena, genero maskulinoari nahiz femeninoari sozialki ezarritako mugak deskubritzea (adibidez, gizonezkoak indartsu, zintzo, kirolari, erasokor, sexualki aktibo eta itxura fisikoaz axolagabe definitzen dituzten estereotipoak agerian utzita, baita emakumezkoak sentibera, beldurti, arduratsu eta ahul gisa definitzen dituztenak ere; curriculumaren edukiek transmititzen dituzten ereduak eta ezagutzen ustezko neultraltasuna auzitan jarrita; eskola materialaren eta eskola espazioen erabileraz eztabaidatuta; irakasleek neska nahiz mutil ikasleekin daukaten harremana aztertuta). Izan ere, ikastetxeetako eguneroko bizitzan gertatzen diren estereotipoak eta adierazpen sexistak inplizitu nahiz esplizitu horiek ikustarazten direnean baino ezin izango zaio heldu, definizio sozialen arabera neska eta mutil izateari esleitutako jarduerak, erantzukizunak, itxaropenak eta balioak deseraikitze lanari, hitz batean, aldaketari.

4. ONDORIOAK

Artikulu honetan Bilboko bigarren hezkuntzako eta unibertsitate hezkuntzako gazteen eta nerabeen genero-estereotipoak aztertu dira. Sexuaren arabera sozialki esleitutako ezaugarri horiek rol eta identitate jakinak ematen dizkiete emakume eta gizonezkoari. Azterketan ikusi ahal izan denez, gazteek eta nerabeek euren bizipen afektibo eta sexualak egokitzeko erabilitako estereotipoak genero-markaz kutsaturik daude oraindik gaur egun, hau da, gure gizartean ohikoak izan diren maskulinitatearen eta feminitatearen ereduak loturik agertzen dira, eta eredu horiek gizonezkoari leku hegemonikoa ematen dieten harremanak hartzen dituzte barnean. Hartara, mendekotasunean oinarritutako desberdintasun sozialak eta sexualak beregiteko eta legitimatzeko tresna dira genero-estereotipoak.

Ildo horretatik, bigarren hezkuntzako eta unibertsitate hezkuntzako ikasleekin egindako ikerketak erakutsi digu gaur egungo gazteak ideia, balio eta irudikapen jakin batzuk birstortzen diren testuinguru kultural batean sozializatu direla: maitasunaz, maitasun-ereduez eta erakargarritasun-eredu maskulinoez eta femeninoez sortutako irudikapenak dira aipaturikoak, menderatze-egitura maskulinoari dagozkionak. Horregatik premiazkoztat jo da gizarteak, bere sozializazio guneen bitartez, erreferen-

tzia moduan eskaintzen dizkien eredu maskulinoak eta femeninoak arretaz aztertzea.

Sozializazio agentzien berrikusketa egitean familia, izan da aintzat harituriko lehen gunea. Eta honako hau ikusi da: lanaren banaketari dagokionez familia eredu berdintasunezko harremanetarantz aldatzen ari bada ere, gizartean indarrean dirauen ordena sinboliko nagusiari dagokionez familiak ez ditu transmititzen afektibitate- eta sexu-harremanen mundua pentsatzeko eta egiteko eredu berriak. Hedabideek eskainitako sozializazio lausoa eta anonimoa izan da ikerturiko bigarren gunea. Gazteen kontsumo mediatikoan ere nagusi den ordena sinbolikoa indartzen duten balioak atzeman dira. Azkenik, hezkuntza sistema hartu da gogoan. Ikerketan nabarmentzen denez, menderatze maskulinoaren egiturak berregiten dituzten instituzioen artean, itxura denez eskolak beste sozializazio gune batzuk baino modu esplizituagoan ekin dio gaur egungo sozializazio ereduak aldatzeko ahaleginari. Dena den, batik bat balio esplizituen transmisioan jarri da arreta orain arte eskola esparruan, eta ez Hezkidetzari lotuta dauden balio eta praktiken zeharkako lanketan.

Abstract

This article gives some of the results from the investigation into Domestic Violence in relationships among adolescents and young people in Bilbao that was carried out during 2008 with funding from the Bilbao City Council Area for Equality and Cooperation. The aim of the research was to find out the beliefs, attitudes and practices that Bilbao's adolescent students and young people express when they talk about being in a couple and domestic violence, as well as the links that they establish between this type of violence and their emotional relationships past, present or future. The article looks in greater depth at gender stereotypes —associated to determined models of masculinity and femininity— that are deeply rooted among young people and adolescents, defining their representations and behaviour guidelines in the field of emotional-sexual relationships and in the virtual changes that are occurring in certain socialisation agencies relating to transmitting these models.

Keywords: Gender stereotypes. Youth. Secondary Education. High Education. Socialization agency.

En este artículo se dan a conocer algunos de los resultados de la investigación Violencia de género en las relaciones de pareja de ado-

lescentes y jóvenes de Bilbao, que se realizó durante el año 2008 con la financiación del Área de Igualdad y Cooperación del Ayuntamiento de Bilbao. El objetivo de la investigación ha sido conocer las creencias, actitudes y prácticas que expresan en sus discursos estudiantescos adolescentes y jóvenes de Bilbao sobre la relación de pareja y la violencia de género, así como los vínculos que establecen entre este tipo de violencia y las relaciones afectivas que mantienen, hayan mantenido o puedan mantener en un futuro próximo. En el artículo se profundiza en los estereotipos de género —asociados a determinados modelos de masculinidad y feminidad— enraizados entre jóvenes y adolescentes que definen las representaciones y pautas de comportamiento de ellos/ellas en el ámbito de las relaciones afectivo-sexuales y en los virtuales cambios que se están produciendo en determinadas agencias de socialización en relación a la transmisión de estos modelos.

Palabras clave: Estereotipos de género. Juventud. Educación Secundaria. Educación Superior. Agencias de socialización.

Cet article présente quelques résultats du programme de recherche sur la Violence faite aux femmes dans les relations de couples des adolescents et jeunes de Bilbao, ce programme a porté sur l'année 2008 avec le financement du Service Égalité et Coopération de la Mairie de Bilbao. L'objectif de cette recherche consiste à connaître les croyances, attitudes et pratiques exprimées par les étudiants adolescents et jeunes de Bilbao dans le discours qu'ils tiennent quant à la relation de couples et la violence faite aux femmes, ce programme de recherche vise aussi à établir les liens entre ce type de violence et les relations affectives qu'ils entretiennent, ont entretenu ou pourraient entretenir à l'avenir. L'article approfondit notamment les stéréotypes hommes-femmes —liés à certains modèles de masculinité ou de féminité— ancrés chez les jeunes et adolescents qui définissent les représentations et règles comportementales qu'ils/elles ont dans le cadre des relations affectives et sexuelles et dans les échanges virtuels qui se produisent dans certaines agences de socialisation en rapport à la transmission de ces modèles.

Mots clé: Les stéréotypes de genre. Jeunesse. Enseignement Secondaire. Enseignement supérieur. Agences de socialisation.

BIBLIOGRAFIA

- Aguinaga Roustan, M.J. (1999): *Igualdad y vida cotidiana: pero ¿qué quieren las mujeres?*. Madrid: Unión de Asociaciones Familiares. Colección Cuadernos de las familias democráticas, 27.
- Amorós, C. (1995): *Diez palabras clave sobre la mujer*. Bilbao: Verbo Divino.

- Amurrio, M.; Larrinaga, A.; Usategui, E. eta del Valle, A.I. (2008a): *Violencia de género en las relaciones de pareja de adolescentes y jóvenes de Bilbao*. Txosten Kuantitatiboa. Helbide elektronikoa: http://www.bilbao.net/castella/mujer/violencia_genero/informe_violencia_adolescentes_jovenes/informe_cuantitativo.pdf 2010eko Ekainaren 18an kontsultatua.
- (2008b): *Violencia de género en las relaciones de pareja de adolescentes y jóvenes de Bilbao*. Txosten Kualitatiboa. Helbide elektronikoa: http://www.bilbao.net/castella/mujer/violencia_genero/informe_violencia_adolescentes_jovenes/informe_cualitativo.pdf 2010eko Ekainaren 18an kontsultatua.
- Artazcoz, L.; Escribà-Agüir, V. eta Cortès, I. (2004): «Género, trabajo y salud en España». *Gaceta Sanitaria* 18, supl. 2, 28-40.
- Askew, S. eta Ross, C. (1991): *Los chicos no lloran: el sexismo en la educación*. Bartzelona: Paidós.
- Bericat, E. (1998): *La integración de los métodos cuantitativo y cualitativo en la investigación social: Significado y Medida*. Bartzelona: Ariel.
- Bonder, G. (1993): *La igualdad de oportunidades para mujeres y varones. Una meta educativa. Programa nacional de promoción de la mujer en el área educativa*. Buenos Aires: UNICEF.
- Callejo, J. (2001): *El grupo de discusión: introducción a una práctica de investigación*. Bartzelona: Ariel.
- Canales, M. eta Peinado, A. (1994): «Grupos de discusión», in J.M. Delgado eta M.J. Gutiérrez (koord.): *Métodos y técnicas cualitativas de investigación en Ciencias Sociales*. Bartzelona: Síntesis, 288-311.
- Comité Económico y Social Europeo (CESE) (2004): *Informe sobre la igualdad de hombres y mujeres*. COM 115.
- Denzin, N. eta Lincoln, Y.S. (1994): «Introduction: entering the field of qualitative research», in N.K. Denzin eta Y.S. Lincoln (arg.): *Handbook of Qualitative Research*. Thousand Oaks: Sage, 1-17.
- Gerber, M. (1991): «Gender stereotypes and power: perceptions of the roles in violent marriages», *Sex Roles*, vol. 24, 7/8, 439-458.
- (1995): «Gender stereotypes and the problem of marital violence», in L. Adler eta F. Denmark (arg.): *Violence and the prevention of violence*. New York: Praeger, 145-155.
- Huici, C. eta Moya, M. (1997): «Estereotipos», in F. Morales *et al.*: *Psicología social*. Mexiko: McGraw Hill, 285-333.
- Ibáñez, J. (1986): *Más allá de la Sociología. El grupo de discusión: Técnica y crítica*. Madril: Siglo XXI.
- (1992a): «Cómo se realiza una investigación mediante grupos de discusión», in M. García Ferrando, J. Ibáñez eta F. Alvira (bil.): *El análisis de la realidad social. Métodos y técnicas de investigación*. Madril: Alianza Universidad, 569-581.
- (1992b): «Perspectivas de la investigación social», in M. García Ferrando, J. Ibáñez eta F. Alvira (bil.): *El análisis de la realidad social. Métodos y técnicas de investigación*. Madril: Alianza Universidad, 51-85.
- Larrañaga, I.; Arregui, B. eta Arpal, J. (2004): «El trabajo reproductivo o doméstico». *Gaceta Sanitaria*, Informe SESPAS, 18, 35-41.
- Martín Serrano, E. eta Martín Serrano, M. (1999): *Las violencias cotidianas cuando las víctimas son mujeres*. Madril: Instituto de la Mujer.

- Meras Lliebre, A. (2003): «Prevención de la violencia de género en adolescentes». *Injuve: Estudios de Juventud*, 62, 143-150.
- Rist, R.C. (1999): «Sobre la comprensión del proceso de escolarización: aportaciones de la teoría del etiquetado», in M.F. Enguita: *Sociología de la educación*. Barcelona: Ariel, 615-627.
- Sanchis, R. (2006): *¿Todo por amor? Una experiencia educativa contra la violencia a la mujer*. Barcelona: Octaedro.Rosa Sensat.
- Toldos Romero, M.P. (2004): *Adolescencia, violencia y género*. Helbide elektronikoa: <http://eprints.ucm.es/tesis/cee/ucm-t26325.pdf> 2010eko Ekainaren 18an kontsultatua.
- Tomé, A. (2001): «La construcción de las identidades masculinas y femeninas en la escuela», in N. Blanco (bil.): *Educación en Femenino y en Masculino*. Madrid: Akal, 87-98.
- eta Rambla, X. (arg.): (2001): *La coeducación de las identidades masculinas en la educación secundaria*. Barcelona: Institut de Ciències de l'Educació.
- eta Rifà, J. (2007): «La violencia de género en los centros educativos», in Hainbaten Artean: *Coeducación y prevención temprana de la violencia de género*. Madrid: Ministerio de Educación y Ciencia, 87-101.
- Villaseñor Farías, M. eta Castañeda Torres, J.D. (2003): «Masculinidad, sexualidad, poder y violencia: análisis de significados en adolescentes». *Salud Pública de México*, vol 45, Supl. 1, 44-57.